

## FUNTSEZKO ELKARKETAK

Edozein produktuk aurrera egin dezan beharrezkoak dira kanpoko enpresen laguntza garraiorako, salmentarako, produkzioarako etab.

Gure kasuan ezpainetako hidratantea sortzeko, “Freshly cosmetics” enpresarekin egingo dugu lan. Enpresa honen filosofia produktu kosmetikoak egitea da ingurumena zainduz, hau da, osagai ekologiko eta ez kimikoekin eta plastiko gutxiagorekin. Gainera, bertako osagaiak erabiltzen dituzte eta Espainia mailan bakarrik saltzen dituzte haien produktuak modu eksklusiboan. Funtsean guk dugun ideia erabiliko dute hauek produktua sortzeko, hau da, osagaiak, zaporeak... Ezpainetako enzaugarriak kontuan harturik, gutxienez 9.000€ balioko du proiektu hau aurrera ateratzea hasieran.

FRESHLY  
C O S M E T I C S

Produktuaren salmentari dagokionez, “Freshly” enpresaren dendetan eta web orrian eskuragai egongo dira alde batetik. Web-orriko produktuak bezeroengana iristeko, enpresak berak bidaltzen ditu produktuak hauen etxetara, beraz metodo hori erabiliko dugu.

Hala ere, gure produktuak gure fabrikatik Freshlyren dendetara eta alderantziz bidaltzeko, MRW enpresaren laguntza edukiko dugu.

**MRW**

Decathlon enpresarekin bat egingo dugu ere bere dendetan gure produktua saltzeko. Honen bidez, hau beste publiko batera zabalduko dugu.



Kakaoaren bateriak guk geuk ekoiztuko ditugu gure lantegian. Hasieran guk egingo dugu baina, zehaztu bezala, laguntza behar izanez gero, langile pare bat edo kontratatuko genituzke.